

OSAKIDETZAREN JARDUEREN BALANTZEA **2017KO LEHENENGO SEIHILEKOA**

LEHEN MAILAKO ARRETA

Lehen Mailako Arretan, oro har, **jarduera-mailak modu bertsuan jarraitu du 2017an**, bai kontsulta medikoetan, bai erizaintzako kontsultetan, eta aldakuntza arinak izan dira medikuntzan eta pediatrian.

Paziente bakoitzari eskainitako denbora ez da aldatu eta 10 minutu inguruan mantendu da.

Kontsultak eskuragarriago ipini dira **telefono bidezko kontsulten** bidez; hala, 2017ko lehen seihilekoan modalitate horretako 1.386.808 kontsulta izan dira orotara. Horren esan nahi du guztira izandako kontsulten **% 22,4 telefono bidez** artatu direla. Telefono bidezko kontsultek **balioespen handia** dute herritarren artean, osasun-zentroetara eta anbulatorioetara joatea saihesten baitute; hala, osasun-profesionalak zuzenean artatzen ditu pazienteak kontsultara joan beharrik izan gabe.

Kontsulta mediken guztizkoari dagokionez, iazko seihileko bereko datuen antzekoak izan dira aurten ere; hala, **6.184.053 kontsulta egin dira**.

Erizaintzan 1.941.928 kontsulta egin dira, 2016ko epealdi berean eginikoen oso antzekoa den zifra, eta horren modalitate ezberdinen artean, nabarmendu behar da erizaintzako etxeko kontsultak handitu direla (% 1) eta baita erizaintzako-prozedura kopurua ere (% 3,3).



ARRETA ESPEZIALIZATUA

Kotsultak

Konsulta espezializatuak **% 2,5 ugaritu dira**, eta nabarmentzekoa da beste behin ere Lehen Mailako Arretaren eta Arreta Espezializatuaren arteko **komtsulta-arteke ez-presentzialek % 15,4ko hazkundera baino handiagoa izan dutela**; horrek erakusten du mailen arteko koordinazioa, ESletan antolatutako egituran bat egin izanari esker (Osakidetzan 2016an amaitutako egitura). Kardiologia eta Digestioa espezialitateek erabiltzen dute kotsulten modalitate hori gehien (% 17).

Konsulta hauek Lehen Mailako Arretan jarduera indartzen dute, kotsultagile gisa jardunda, eta pazienteari erantzun arinagoa emateaz gain ospitaleetara alferrikako joan-etorriak saihesten dira; hala, erabilerraztasuna ere hobetzen da, bi mailek modu koordinatuan jarduten baitute.

Arreta Espezializatuan izandako telefono bidezko kotsultei dagokienez, 2017ko lehendabiziko sei hilabete honetan ia 134.000 konsulta eskaini dituzte profesionalak paziente kronikoen segimendua errazteko; aurreko urteko datuekin alderatuta, % 16,9 handitu dira modalitate honetan telefonoz izandako kotsultak.



TELEFONO BIDEZKO KONTSULTAK

Telefono bidezko kontsultek tokia hartu dute osasun-arretan: guztira **1.500.000 kontsulta baino gehiago** egin dira telefonoz; 2016ko lehen seihiilekoarekin alderatuta, % **7,4** handitu da kopuru hori.

Herritarrek ondo balioesten dituzte telefono bidezko kontsultak, osasun-arretaren erabilerraztasuna hobetzen baitute. Lehen Mailako Arretan, pazienteek eurek eska ditzakete telefono bidezko kontsultak osasun-zentroan bertan edota Internet bidez, Osakidetzaren hitzordua hartzeko webgunean.

Arreta Espezializatuaren kasuan, berriz, telefono bidezko kontsultak, oro har, patologia kronikoak dituzten pazienteei eskaintzen dizkiete osasungintzako profesionalak; hain zuzen ere, aurtengo lehendabiziko seihiilekoan % 17ko hazkunde nabarmena izan dute.

Telefono bidezko kontsultak Consultas Telefónicas Ekaina 2017 Junio

1. sei hilabetea – 1º semestre

Telefono bidezko kontsultak Consultas telefónicas	2016	2017	%
Familia Medikuntza Medicina de Familia	1.149.287	1.223.054	% 6,4
Pediatría Pediatría	152.423	163.754	% 7,4
1. Mailako Arretako kontsultak guztira Total consultas Atención Primaria	1.301.710	1.386.808	% 6,5
Ospitaleko Arreta Atención Hospitalaria	114.364	133.651	% 16,9
Kontsultak, guztira Total consultas	1.416.074	1.520.459	% 7,4



Gaur egun, Lehen Mailako Arretan familia-medikuntzako kontsulten % 23,5 telefono bidez egiten dira; pediatrian, berriz, % 17,7 egiten dira telefonoz.

OSPITALE-JARDUERA ADIERAZLEAK

Ospitalizazio-alten kopuruak egonkor jarraitzen du, eta % 1,5eko igoera arina izan du.

2017ko lehendabiziko sei hilabete hauetan, ospitaleetako larrialdiak apur bat murriztu dira (-% 1,4), eta larrialdietatik ingresatutako kopurua, berriz, pixka bat handitu da (% 1,5).

Aurreko urteko garai bereko datuekin alderatuta, fluktuazio arinak ageri dira ospitaleetako larrialdietako zerbitzuetara joaten diren pazienteen larritasunean, eta arintzat edo oso arintzat hartzen diren larrialdiak artatutako larrialdi guztien % 65 dira (468.539).

Programatutako ebakuntza kirurgiko handiak % 4,1 ugartu dira.

Ospitaleko adierazleak Indicadores At. Hospitalaria Ekaina 2017 Junio

1. seihilekoa - 1º semestre

Ospitaleko Jarduera Actividad Hospitalaria	2016	2017	%
Ospitalizazioko Altak Altas Hospitalización	138.199	140.339	% 1,5
IK Nagusia, Programatua IQ Mayor Programada	68.341	71.114	% 4,1
Larrialdiak Urgencias	475.423	468.539	% -1,4

Larrialdiak Urgencias Ekaina 2017 Junio

Larrialdietan banaketa, triajearen lehentasunaren arabera / Distribución de urgencias según prioridad del triaje



Kirurgia handiko jarduera

Lehendabiziko seihileko honetan, **guztira 2.773 ebakuntza kirurgiko gehiago egin dira** aurreko urteko datuen aldean. **Ohiko kirurgia programatua** izandako interbentzioak ere gehiago izan dira (**2.406 gehiago**, hain justu), eta **ezohiko ebakuntza kirurgikoak, berriz, 367 gehiago**, guztia ere iazko lehendabiziko seihilekoko datuekin alderatuta.

Ospitalizaziorik gabeko kirurgia handi anbulatorioari dagokionez, nabarmentzekoa da **interbentzio guztien % 60,3 ingesatu beharrik izan gabe** egin direla.



Ospitalizazioen ordezko aukeretan izandako jarduera (Ospitale Birtualeko Jarduera)

Osakidetzak ospitalizazio tradizionalaren ordezko aukerak sustatzen jarraitzen du, izan ere, eraginkortasun-adierazle onak eta pazienteen balorazio-indize handiak jasotzen ditu.

Kirurgia handi ambulatorioa % 3,3 handitu da, eta praktikan etxeko ospitalizazioak eta eguneko mediku ospitaleko prozedurek beren horretan jarraitu dute, iazko kopuruen modu bertsuan.



Halaber, **etxeko ospitalizazioak** zuzenean koordinatuta jarduten du ospitalizazioekin, Osasun Aholkuarekin eta Lehen Mailako Arretarekin, eta, ondorioz, pazienteen segimendua modu globalean egin daiteke.

Urteko lehen sei hilekoan, nabarmentzekoak dira **patologia kronikoak dituzten pazienteen segimendua (% 25), zainketa aringarriak dituzten pazienteena (% 23) eta onkologikoa (% 7).**

Era berean, paziente akutuen arretaren jarraitutasunak ere esku hartzen du (% 25), baita kirurgikoenak ere (% 18).

Alternatibak Ospitalizazioari Alternativas a la Hospitalización Ekaina 2017 Junio

Etxeko ospitalizazioa ingresuak
Ingresos Hosp. a Domicilio

6.306



Hospitalización

Consejo Sanitario

Emergencias

Atención Primaria

Etxeko ospitalizazioa/H. A Domicilio Telde patologikoak/Grupos patológicos	2016	2017
Patologia akutua/Patología aguda	% 28	% 25
Patologia kronikoa/Patología Crónica	% 26	% 25
Aringarrietako pazienteak/Palíativos (Onkologikoak eta Kronikoak)	% 21	% 23
Paziente kirurgikoak/quirúrgicos	% 17	% 18
Paziente onkologikoak/oncológicos	% 7	% 7
Transplantatuak	% 1	% 1

Larrialdietako jarduera

Larrialdi-zerbitzua da beste bitarteko garrantzitsu bat herritarren osasun-arreta bermatzeko garaian, herritarrei estaldura jarraitua eta garraio egokia eskainita hala behar dutenean.


Nabarmentzekoa da, era berean, nahiz eta jasotako deien kopuruak maila bertsuan jarraitu, bitartekoen mobilizazioan hazkundera nabari dela, batez ere ambulanzien eta **oinarrizko bizi-euskarriaren eta aurreratuaren kasuan (% 3,6)**, baita **etxeke larrialdietan ere (% 3,1)**, eta, batez ere, **helikoptero bidezkoetan (% 20,4)**.



OSAKIDETZAREN PREBENTZIO-PROGRAMAK

Osakidetzak antolatzen dituen **prebentzio-programek**, euren ibilbideari esker, gero eta konfiantza handiagoa sortzen dute herritarren artean. Horren erakusgarri dira herritarren partaidetza-tasa handia eta emaitza egokiak.

Partaidetzaren ehunekoak Europa osoko handienetakoak dira. Alde horretatik, **koloneko eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarreko programa** nabarmendu behar da, **% 72ko partaidetzarekin**; baita **bularreko minbiziarena ere, % 79,6ko partaidetzarekin**. Bi kasuetan ere, adierazleen hobekuntza nabari da, nahiz eta ekitaldiaren behin betiko balioespena urtearen amaieran egingo den.



TRANSPLANTEEN PROGRAMA

Transplanteen programari erreparatzen baldin badiogu, nabarmentzekoa da emaitzen kopuru handia, aurreko urteko datuekin alderatuta % 12 handitu baita.

Ibilbide honekin jarraituta, baliteke Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea Estatu osoan giltzurrun-transplante gehien egiten dituen ospitale bihurtzea, modalitate honetako 104 tranplante egiten dituelako eta horietatik % 8,6 bizirik dagoen emaitze batengandik datozelako.

Nahiz eta hezur-muineko transplanteak gutxitu diren, Osakidetza gaur egun buruaski da, eta markatuta zeukan helburua betetzen du.

Era beren, nabarmendu behar da gibelesko transplanteak % 9,5 igo direla.



OSPITALETAKO ITXARON-ZERRENDAK

Osakidetzak 2017ko lehen sei hilabekoan izandako **itxaron-zerrendei** dagokienez, **kirurgien** eremuan ikus dezakegu batez besteko atzerapena egonkortu dela; hala, **47,9** egun itxaron behar izaten da. Adierazle hori 65/2006 Dekretuan ezarritakoaren azpitik dago.

Informazioa hiru lurraldeetan xehatzen badugu, zifra hauek ditugu:

- **Araba:** Paziente-kopurua egonkor mantentzen da eta batez besteko atzerapena pixkat bat jaitsi da.
- **Gipuzkoa:** Pixkat bat hobetu da batez besteko atzerapena Donostialdea ESlan eta Bidasoa ESlan, aldiz, pixkat bat txartu da Goierriko ESlan eta Debabarreneko ESlan.
- **Bizkaia:** Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta, Barrualde-Galdakao eta Bilbo-Basirtu ESletan itxaron-zerrendak egonkortu dira.

Kanpo kontsultei dagokienez, paziente-kopuruaren eta itxarote-denboraren hazkunde apal bat ageri da.

Proba Osagarrien itxaron-zerrendan paziente-kopurua pixkat bat hobetu da eta nabarmentzekoa da.

Hurrengo tauletan daude xehatuta itxaron-zerrenda kirurgikoak, kanpo kontsultenak eta probenak, baita batez besteko itxaronaldiak ere, bai ESletakoak, bai Osakidetzaren zerbitzuetakoak.

Kirurgiako Itxaron Zerrenda Lista de Espera Quirúrgica Ekaina 2017 Junio				
Kirurgiako Itxaron Zerrenda Lista de Espera Quirúrgica	Paziente kopurua Nº pacientes		Batez best. atzerapena Demora media	
	2016	2017	2016	2017
	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio
Araba ESle	3.224	3.218	53,6	52,6
Donostialdea ESle	3.738	3.765	48,4	44,3
Goierri-Urola Garaiko ESle	637	762	34,5	47,4
Bidasoko ESle	564	462	46,0	41,2
Debabarreneko ESle	461	500	43,4	50,1
Debagoina ESle	464	418	40,6	43,6
Ezkerr-Enkar-Gurutz. ESle	3.236	3.240	43,4	42,7
Bilbo-Basirtu ESle	2.934	2.945	52,7	52,3
Barrualde-Galdakao ESle	2.533	2.321	49,7	49,7
Barakaldo-Sestaoko ESle	787	786	53,7	49,7
GUZTIRA/TOTAL OSAKIDETZA	18.621	18.417	46,3	47,9
Tolosaldea ESle*	128	63	24,0	21,0

Kirurgiako Itxaron Zerrenda Lista de Espera Quirúrgica Ekaina 2017 Junio

1. seihiakoa - 18. semestre

Kirurgiako Itxaron Zerrenda Lista de Espera Quirúrgica	Paziente kopurua Nº pacientes		Batez best. itxarpena Demora media	
	2016	2017	2016	2017
	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio
Kirurgia Orok./Cirugía General	2.557	2.935	41,1	46,9
Oftalmologia	4.022	4.233	36,7	36,5
Otorrinolaringologia	1.460	1.407	56,4	52,9
Traumetologia	6.299	5.533	61,2	57,8
Urologia	1.104	1.113	47,1	44,7
Tokoginekologia	805	717	42,1	42,4
Gainerako zerbitz./Resto de servicios	2.374	2.479	45,8	47,0
GUZTIRA/TOTAL OSAKIDETZA	18.621	18.417	48,3	47,9

Kontsultetako Itxaron Zerrenda Lista de Espera Consultas Ekaina 2016 Junio

1. seihiakoa - 18. semestre

Kontsultetako Itxaron Zerrenda Lista de Espera Consultas	Paziente kopurua Nº pacientes		Batez best. itxarpena Demora media	
	2016	2017	2016	2017
	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio	Ekaina Junio
Araba ESia	14.058	14.475	28,9	27,5
Donostialdea ESia	13.654	15.387	20,5	21,6
Goierni-Urola (Garaiko ESia)	3.464	3.108	28,4	29,1
Bidasoko ESia	2.257	2.637	19,7	30,1
Debabarreneko ESia	2.298	2.593	9,3	12,8
Debagioko ESia	1.360	1.275	14,4	14,6
Elker-Enkar-Garutz. ESia	13.008	15.905	22,3	30,6
Bilbao-Basurto ESia	17.439	18.221	27,7	33,4
Berrvalde-Galdaxo ESia	10.071	10.842	21,4	22,4
Berevalde-Sestaoko ESia	4.494	4.313	26,2	24,0
Urola ESia		1.286		24,9
Egoaldi ertain/luzeko osp./ H. Media Larga Estancia	3.156	2.787	24,1	24,4
GUZTIRA/TOTAL OSAKIDETZA	85.760	92.849	24,0	26,9
Tolosalde ESia*	1.117	1.299	25,0	26,0

* Auzoan kintaketa daude, Tolosaldea ezarriko pazienteen artean osakidetza itundua/Datos de la Clínica de la Auzoan, concertada para la atención de pacientes de OS: Tolosaldea

OSAREAN - OSAKIDETZA EZ-PRESENTZIALA

Herritarraren eskuragarritasuna hobetzen jarraitzen duten komunikazioko eta osasun-arretako kanal berriek ugaritzen jarraitzen dute, eta nabarmentzekoak dira alde horretatik **Osasun Aholkua, webguneko Hitzordua eta Osasun Karpeta**.

Osasun Aholkua

Osasun Aholkuak jaso dituen dei kopurua % 4,3 handitu da aurtengo lehen seihilekoan (guztira 87.324 dei); horien artean, nabarmentzekoa da paziente kronikoen segimenduak izandako hazkundera (% 51).

Etxeko segimendu telemonitorizatuak (TelePOC, bihotz-gutxiegitasun telemonitorizatu eta paziente pluripatologikoen telemonitorizazioa) 557 paziente artatzen ditu (ia % 26ko hazkundera). Telomonitorizatutako bihotz-gutxiegitasuna-72h zerbitzuaren kasuan, guztira 907 paziente monitorizatu dira, eta horrek % 51ko hazkundera esan nahi du.



Osarean Osakidetza Ez-presentziala/No Presencial

1. seihiakoa – 1º semestre

TELEMONITORIZAZIOA	2016	2017	%
Tele-BGBK/EPOC		236	
Tele-Bihotz- gutxiegitasuna/Insuficie ncia Cardiaca	443	557	% 25,7
Tele- Pluripatologikoak/Pluri patológicos		215	
Tele-IC 72h	600	907	% 51
Tele-TAO	221	525	% 137,5
Taupade-marrazgailuak eta Desfibriladoreak (metatus) Marcapasos y Desfibriladores (acumulado)	-	8.271	



Osakidetzaren webguneko zita

Osakidetzaren webgunearen bidez hitzordua hartzeko zerbitzuak **poliki-poliki indartzen jarraitzen du**, eta 2017ko lehen seihiako honetan dagoeneko miloi bat txanda hartu dira online; horrek esan nahi du **zerbitzu honen erabilera % 13,1 handitu dela** aurreko urteko datuekin alderatuta.

Webgune bidez zita hartzeko zerbitzu honetara edozer gailu mugikorretatik sar daiteke, **Osakidetzaren app berriaren** bidez, eta familia-medikuntzako, pediatriako eta emaginen zitak har daitezke online.

Paziente Digitala Paciente Digital

App Osakidetza

1. seihiakoa – 1 ^o semestre			
	2016	2017	%
Web Hitzordua Cita Web	946.062	1.070.346	% 13,1



© 2017 - Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco

Osasun Karpeta

Teknologia berrien esparruko beste erreminta bat gehiago da, eta haien erabilera poliki-poliki handitzen ari da. Hala, seihiako honetan karpetak **190.000 sarrera** izan ditu; aurreko urteko garai berarekin alderatzen badugu, **bikoiztu egin da** erabilera.

Osasun Karpetak pazientearen eta medikuaren arteko harremana hobetzen du, baita pazientearen eta Osakidetzaren artekoa ere; hala, kontsultaren atala indartzen jarraitzeaz gain, osasun-profesionalekin informazioa eta interakzioa aberasten ere segitzen du.

Herritarraren Osasun Karpeta Carpeta de salud del ciudadano



ZURE HISTORIAL MEDIKO GAZTIA KARPETA ELEKTRONIKO BAKAR BATEAN.
SAR ZAITEZ OSAKIDETZA EUSKADIKO EUS ATARITIK, ZURE HUKIOR, TABLET EDO ORDENAGAILU BIDEZ.

- Eratu eta kontsultatu zure historiala, jartzen zure medikuarekin, ebazpena kirurgiko biderako zure itxaropena zuzentzeko.
- Sarri sartu zure datuak zure seme-alabaren osasun historialan.
- OSAKIDETZA eta OSASUN KARPETA zure osasuna kontrolatzeko biderak dira.
- Zure burua erabiltzen du zure osasun historiala zure buruarekin.

O-sarean

OSASUN KARPETA

1. seihiilekoa - 1º semestre

Osasun Karpeta Carpeta de Salud	2016	2017	%
Sarrerak	98.515	186.479	9647,18
Accesos			

Osakidetza    

Osasun Karpetara sarbide berriak

Euskal gizartean sortzen ari diren beharrezan kontuan izanda, Osakidetza hirugarrenei ere uzten die sartzeko Osasun Karpetara: **16 urtetik beherako gurasoei edota legezko tutoreei, helduen ordezkariari** (esaterako, gurasoen Osasun Karpetara sartzeko, nagusiak badira), baita **pertson ezinduen legezko ordezkariari ere**.

Bestalde, lehen seihiileko honetan, **jaioberrien gurasoei** ere sarbidea eman zaie, eta seme-alabaren Osasun Karpetara sartzeko aukera dute ospitalean bertan.

**Sarbideak
HERRITARRAREN OSASUN
KARPETA****Accesos
CARPETA DE SALUD
DEL CIUDADANO**

- **Osakidetzako OTI duten 16 urtetik gorakoak / Mayores 16 años con TIS Osakidetza**
- **Hirugarrenenentzako sarrera berria / Nuevo Acceso de Terceras Personas :**
 - Gurasoak eta adin txikikoen tutoreak / Progenitores y tutores de menores
 - Legez ezgaituta daudenen ordezkariak / Representantes incapacitados legalmente
 - Titularrak baimendutako ordezkariak / Representantes autorizados por el titular
 - **Jaioberrien karpetarako sarbidea / Acceso a Carpeta de Recién Nacidos**



Jaioberrien gurasoei Ospitalean haien seme-alabaren Osasun Karpetarako sarbidea kudeatzea eskaintzen zaie / A los progenitores de los recién nacidos se les oferta en el Hospital la gestión del acceso a la Carpeta de salud de su hijo

